



2016KO MAIATZAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko apirilaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK.-

Alkateak esaten du udal langileen ordainsariei dagokionean, EUDEL langileen sindikatuekin negoziatioetan ari dela eta oraindik akordiorik izenpetu ez bada ere, ordainsarien igoerari dagokionean %1eko igoera dela mahai gainean dagoen proposamena eta, udal langileekin hitz egin ondoren, hori bera dela hemen Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien Batzordetik proposatzen dena. Igoera horrek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango lituzke.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten ados daudela proposamenarekin.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aho batez, udala langileen ordainsariak %1ean igotzea eta igoera honek 2016ko urtarrileko 1etik aurrerako ondorioak izatea erabakitzen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

